

Ingresuen sarrera

Gure diru-sarreraren eredua anitza, orekatua eta epe luzera bideragarria izateko diseinatuta dago. Ereduek proiektuaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen du, eta aukera ematen digu hazkunde jasangarri baten aldeko estrategia sendo bat eraikitzeko. Helburua ez da soilik produktu edo zerbitzu baten salmenta bidez irabaziak lortzea, baizik eta balio erantsia sortzen duten eta ekonomia zirkularra modu integralean bultzatzen duten diru-iturri komplementarioak garatzea.

Iturri nagusia bilgarri berrerabilgarriak supermerkatu, elikadura-enpresa eta marka ekoizleei saltzea izango da. Enpresa horiek beren irudia hobetu eta ingurumen-inpaktua murrizten duen ontzi ekologiko bat erabiltzeagatik ordainduko dute.

Enpresa-harpidetzen bidez ere diru-sarrerak sortuko ditugu. Enpresa batzuek hileko edo urteko kuota bat ordainduko dute ekonomia zirkularraren sisteman parte hartzeko, gure app-an agertuko dira eta puntuen programan parte hartuko dute.

Garraio publikoko enpresekin egingo ditugun hitzarmenetan ere diru-sarrera potentzial handia dago. Akordio horiek babes, elkarrekin egindako komunikazio-kanpainak edo ikusgarritasun-trukeak barne har ditzakete. Garraio publikoaren ekosistemara gehitzea estrategikoa da, erabiltzaileek lortutako puntuak bidaia eta abonua bihurtu ditzaketelako, eta horrek sistemaren erabilera nabarmen bultzatzen du.

Beste iturri garrantzitsu bat dirulaguntza eta funts berdeak izango dira, gobernuek, Europako erakundeek eta berrikuntza jasangarria eta ekonomia zirkularra babesten duten erakunde pribatuek eskainitakoak.

Gainera, aplikazioak marka jasangarrien publizitate arduratsua egin ahal izango du, eta horrek diru-sarrera gehigarriak ekarriko ditu, proiektuaren balioak arriskuan jarri gabe.

Azkenik, berrerabili ezin diren bilgarriak birziklatu edo birsaldu egingo dira, materialen zati bat berreskuratuz eta produkzio-zikloa modu zirkularrean ixteko aukera emanez. Prozesu horrek ez du soilik kostuak optimizatzen, baizik eta baliabide gutxiago xahutzen dituen ekoizpen eredua sendotzen du.

Diru-iturri hauen guztien konbinazioari esker, gure enpresa egituraz sendoa, ekonomikoki egonkorra eta eskalagarritasuna ahalbidetzeko prestatua izango da. Gainera, gure jardura guztia jasangarritasun-balioekin eta ekonomia zirkularraren printzipioekin lerrokatuta egongo da, hazkunde arduratsua eta inpaktu positibo iraunkorra bermatuz.